

### 3. Eduki digitalen sorkuntza

#### 3.3. Egile-eskubideak eta lizentziak

##### **3.3.1. Egile-eskubideei buruzko ohar orokorrak**

CRUE-REBIUNek egindako eta Mondragon Unibertsitateko Bibliotekak moldatutako materiala

**Eduki digitalen  
sorkuntza.**

**Egile-eskubideak eta  
lizentziak**

# **Egile-eskubideei buruzko ohar orokorrak**



**CRUE**

**REBIUN**

Red de Bibliotecas Universitarias

# HELBURUAK

Jarduera hau amaitzean, gaitasun hauek lortu behar zenituzke:



**Ingurune digitalean egile-eskubideen garrantziaz jabetzea**

**Egile-eskubideei buruzko araudia jasotzea**

**Interneten aurkitzen duzun informazioaren aurrean jarrera kritikoa izatea**

## AURKIBIDEA

- Egilea. Babestutako obra motak
- Eskubide motak eta horien babesa
- Eskubideen iraupena. Jabari publikoa (Dominio público)

# EGILEA. BABESTUTAKO OBRA MOTAK

Zein da egile-eskubideen esparru juridikoa Espainian?

1/1996 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 12koa, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena (JIL).

JILEk honako hauei ematen die babes:

Subjektu bat:  
**egilea**

Objektu bat:  
**obra**

**GOGORATU!** JILEk ez ditu ideiak babesten, haien adierazpena baizik.

# EGILEA. BABESTUTAKO OBRA MOTAK



**JiLeak autoreak eta obrak babesten ditu, baina...**

## **Nor da egilea?**

Jabetza Intelektualaren Legearen arabera, "**Obra literario, artistiko edo zientifikoren bat sortzen duen pertsona naturala da egilea**".

## **Zer da obra bat?**

"**Gaur egun ezaguna den edo etorkizunean asmatuko den edozein bitarteko edo euskarriren bidez adierazitako jatorrizko sorkuntza literario, artistiko edo zientifiko guztiak**"

Horiei **obra eratorriak, bildumak eta datu-baseak** gehitu behar zaizkie.

# EGILEA. BABESTUTAKO OBRA MOTAK

## Babestutako obra motak:

**1**

**Jatorrizko  
lanak eta  
izenburuak**

**2**

**Obra  
eratorriak**

**3**

**Bildumak eta  
datu-baseak**

# EGILEA. BABESTUTAKO OBRA MOTAK

## Jatorrizko lanak eta izenburuak:

- a) Liburuak, liburuxkak, inprimakiak, epistolarioak, idazkiak, hitzaldiak eta mintzaldiak, auzitegi-txostenak, katedra-azalpenak eta izaera bereko beste edozein obra.
- b) Musika-konposizioak, letrarekin edo gabe.
- c) Obra dramatikoak eta dramatiko-musikalak, koreografiak, pantomimak eta, oro har, antzezlanak.
- d) Obra zinematografikoak eta ikus-entzunezko beste edozein obra.
- e) Eskulturak eta pintura-, marrazketa-, grabatu- eta litografia-lanak, eta komiki grafikoak, baita horien entseguak edo zirriborroak eta gainerako obra plastikoak ere, aplikatuak izan ala ez.
- f) Arkitektura- eta ingeniari-lanen proiektuak, planoak, maketak eta diseinuak.
- g) Topografiari, geografiari eta, oro har, zientziari buruzko grafikoak, mapak eta diseinuak.
- h) Obra fotografikoak eta argazkiaren antzeko prozeduraren bidez adierazitakoak.
- i) Ordenagailu-programak.



1




# EGILEA. BABESTUTAKO OBRA MOTAK

## Obra eratorriak:

1. Itzulpenak eta egokitzapenak.
2. Berrikuspenak, eguneratzeak eta idatzoharrak.
3. Era guztietako laburpenak.
4. Musika-konponketak.
5. Literatura-, arte- edo zientzia-lan baten edozein eraldaketa.

# 2



Sherlock Holmes-en abentura  
baten jatorrizko edizioa




Haurrentzako egokitutako  
edizioa

# EGILEA. BABESTUTAKO OBRA MOTAK


## Bildumak eta datu-baseak:

JILEk babesten ditu, halaber, “edukien aukeraketagatik edo antolamenduagatik sorkuntza intelektualak eratzen dituzten” bildumak eta datu-baseak, “hargatik eragotzi gabe, hala badagokio, eduki horien gainean iraun dezaketen eskubideak”.

3



# ESKUBIDE MOTAK ETA HORIEN BABESA



**JILEk bi eskubide mota handi  
aitortzen ditu:**

**Eskubide moralak**

**Ustiapen-eskubideak**

# ESKUBIDE MOTAK ETA HORIEN BABESA

## Eskubide moralak

**Obraren gaineko eskubide moralak egileari dagozkio, eta ukaezinak eta besterenezinak dira. Honako hauek barne hartzen dituzte:**

- Egileak obra bat jendarteratuko den ala ez eta zein formatutan zabalduko den erabakitzen du.
- Bere benetako izena, izengoitia edo anonimoa den erabakitzen du.
- Obraren egiletza aitortzea eta obraren osotasuna errespetatzea eska dezake.
- Obra aldatu eta merkatutik kendu dezake nahi duenean, ustiapen-eskubideen jabeei kalte-ordaina eman ondoren.
- Obraren ale bakarra edo arraroa kontsulta dezake, beste baten eskuetan badago.

# ESKUBIDE MOTAK ETA HORIEN BABESA

## Ustiapen- eskubideak


Egileak bere obraren ustiapen-eskubideen erabilera eskusiboa du, edozein modutan eta, bereziki, erreprodukzio, banaketa, komunikazio publiko eta eraldaketarako eskubideena. Eskubide horiek ezin izango dira gauzatu bere baimenik gabe, lege honetan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

Mugak: legeak egileari baimena eskatu beharrik ez duten salbuespenak onartzen ditu, hala nola kopia pribatua ([JILko 31. artikulua](#)) eta hezkuntza edo ikerketa zientifikorako aipuak, aipamenak eta ilustrazioak ([JILko 32. artikulua](#)).

Obra baten ustiapen-eskubideak nork dituen identifika daiteke  
Copyright © ikurraren bidez edo Creative Commons lizentzien edozein  
sinboloren bidez.



# ESKUBIDEEN IRAUPENA



Espanian, **obraren ustiapen-eskubideek egilearen bizitza osoan iraungo** dute, bai eta **haren heriotzatik edo heriotza-deklaraziotik hirurogeita hamar urtera** ere.

- **Lan anonimoen** kasuan, obra **jendarteratzen den egunetik aurrera** zenbatzen dira **70 urte**.
- **Elkarlanean idatzitako lanak** bizirik dagoen **azken egilearen heriotzaren datatik aurrera** zenbatuko dira.

Ustiapen-eskubideak amaitzen direnean, obra **Jabari Publikokoa** izango da.



# JABARI PUBLIKOA

## Espanian



Badago jabari publikoko obrak libreki erabiltzerik, betiere obraren egiletza eta osotasuna errespetatzen badira

### Obrak jabari publikokoak dira



**70** Egileen heriotzatik 70 urte igaro badira

**80** urte egileak 1987 aurretik hil baziren



Legeak, auzitegien epaiak eta horien itzulpen ofizialak ere jabari publikokoak dira



Jabari publikoko egileak



Obra hauek edonork erabil ditzake, oinordekoei baimenik eskatu gabe eta ustiapen-eskubideak ordaindu gabe.

Hala ere, obraren egiletza- eta osotasun-eskubide moralak errespetatzeko betebeharrak indarrean jarraitzen du.

# JABARI PUBLIKOA

## BESTE ESKUBIDE BATZUEN IRAUPENA

### Interpretatzaileak



50 urte  
jendaurrean hedatu zenetik

70 urte

2013/11/01ean indarrean zeuden  
fonograma bitartez bada

### Ikus-entzunezko ekoizleak



50 urte  
grabazioa jendaurrean hedatu zenetik

### Fonograma ekoizleak



2013/11/01ean indarrean  
zeuden grabaketentzat

70 urte

jendaurrean hedatu zenetik

50 urte

grabazioa jendaurrean hedatu ez bada



Kontateka hasten da kalkulatu  
beharrekoa sortu eta hurrengo  
urteko urtarilaren 1ean

**!** Eskubide guztiak iraungita egon behar dira obra bat libreki erabili ahal  
izateko

Non aurki ditzakezu jabari publikoko  
obrak?

- [Gutenberg proiektua](#)
- [Jabari publikoan dauden egile espainiarrak](#)
- [Internet Archive](#)
- [Wikimedia Commons](#)
- [Open library](#)
- [IMSLP/Petrucci Music Library](#)



# ARIKETA. AURKITU...




1. Nork dituen argitaratzeko eskubideak
2. Gaztelaniazko itzulpenaren eskubide moralak
3. Jatorrizko obraren eskubideak
4. Eta ilustrazioen eskubideak

Bob Esponja: su influencia en la economía.

Obra original de Pep James.  
Traducido al español por Juana Juan  
Ilustraciones de Ana Ana

© 2019 Editores ingeniosos




# ARIKETA. AURKITU...

1. Argitalpen-eskubideak: Editores ingeniosos, copyright sinboloak adierazten digu.
2. Juana Juanek gaztelaniazko itzulpenaren eskubide moralak ditu.
3. Pep Jamesek jatorrizko lanaren eskubide moralak.
4. Eta ilustrazioen eskubideak Ana Anarenak dira.

Bob Esponja: su influencia en la economía.

Obra original de Pep James.  
Traducido al español por Juana Juan  
Ilustraciones de Ana Ana

© 2019 Editores ingeniosos



# BAZENEKIEN...

- Deskatalogatuta edo agortuta dauden obrek ez dute zertan jabari publikokoak izan.
- Dokumentu baten ale bat edukitzeak ez zaitu bere ustiapen-eskubideen jabe egiten: ezin duzu dokumentu horren kopiarik banatu, ezta Interneten jarri ere.
- Lan batean eskubide ezberdinak egon daitezke (begira infografia hau).



**ERNE:** obra baten gainean pertsona desberdinek izan ditzakete eskubideak

## Itzulpenak



## Moldaketa musikalak



## Ilustrazioak



## Sarrerak, iruzkinak, etab.



# ONDORIOAK

- Egileak eta haien obrak legeak babesten ditu.
- Eskubide moralak ez dira inoiz amaitzen. Ustiapen-eskubideak 70 urterekin amaitzen dira.
- Legeak zati txikiak hezkuntza-helburuetarako erabiltzea ahalbidetzen du, baina egiletza aitortzera behartzen du.
- Jabari publikoko obra batek egile bat izaten jarraitzen du, beti egiaztatu beharrekoa.



**Mondragon  
Unibertsitatea**

Biblioteka

Zalantzarik baduzu, galdetu zure [bibliotekan](#):



**Basque Culinary Center  
Biblioteka**

Juan Abelino Barriola pasealekua, 101  
20009, Donostia, Gipuzkoa.  
T. 943574514  
biblioteca@bculinary.com

**Enpresa Zientzien Fakultatea  
Biblioteka**

Ibarra Zelaia, 2  
20560, Oñati, Gipuzkoa.  
T. 943718009  
biblioteca.enpresagintza@mondragon.edu

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea  
Biblioteka**

Dorleta, z/g.  
20540, Eskoriatza, Gipuzkoa.  
T. 943714157  
biblioteca.huhezi@mondragon.edu

**Goi Eskola Politeknikoa  
Biblioteka**

Campus Iturripe. Loramendi, 4. 20500 Arrasate – Mondragon, Gipuzkoa.  
Campus Orona Ideo. Fundazioa eraikuntza, Jauregi Bailara, z/g. 20120 Hernani, Gipuzkoa.  
T. 943794700  
biblioteca.mgep@mondragon.edu